



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2/2025 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 9koa, garapenerako lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena, 2025eko ekitaldian.

Euskal gizarteak, eta, bereziki, Bizkaiko gizarteak, beste herriekiko elkartasuna bideratzeko bide ugari eratu ditu azken hamarkadetan, eta hamaika ekimen bultzatu ditu giza eskubideez erabat gozatzea eragozten duten gizarte-egitura bidegabenez jabetzera bideratutako ekimen ugari bultzatu ditu.

2001. urtetik aurrera, eta gizarte-energia horri euskarria emate aldera, Bizkaiko Foru Aldundiak gizarte-eraldaketarako lankidetzaren eta hezkuntzaren arloko dirulaguntzen urteko deialdia bultzatu zuen. Harrezkero, lau plan zuzentzaile egin dira, Bizkaian eguneroko eskubide osoak eta diskriminaziorik gabe gizarte global baterako lan egiten duten gizarte-erakundeen eskaerari erantzuteko beharrezkoak diren administrazio-tresnak antolatzearen ondoreetarako.

2021eko abenduan, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lankidetzaren IV. Gida Plana onartu zuen, 2022-2030 aldirako aurreikusia. Proposamen hori lankidetzaren deszentralizatuan oinarritzen da; izan ere, Bizkaian dauden gaitasunen espezifikotasuna eta balioa kontuan hartuta, berezko zeregina izan nahi du elkarren mendeko agertoki global berri bat eraikitzeko, beti ere elkartasun-, koherentzia-, eraldaketa-, koordinazio-, erantzunkidetasun- eta kalitate-printzipioekin bat etorriz.

Horrela, gure erakundearen lankidetzaren deszentralizatuaren garrantzia eta balio erantsia berresten dugu, lurraldetik elkartasun-loturak ezartzeko, tokiko garapen-prozesuak laguntzeko, erakundeak edo gizarte indartzeko eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzan sakonduko duten partaidetza-espazioak sortzeko aukera ematen baitu.

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Era berean, beharrezko txostenak prestatu dira xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren jarraibideei jarraituz.

Foru Dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da 4/2018 Foru Arauaren 25. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa (foru dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan aurreikusitako generoaren araberrako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak jasotzen dira. Ildo horretan, tramitazioan, «Generoaren ikuspegitik eraginik eza justifikatzeko txostena» sartu da, foru dekretu horren 2. artikuluan aipatzen dena.

Halaber, Foru Dekretu hau prestatzeko orduan kontuan hartu da Berdintasunerako VI. Foru Plana (2021-2024), Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2021eko ekainaren 29an onartua.

Horrez gainera, dekretua egitean otsailaren 27ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 16/2018 Foru Dekretua kontuan hartu da; dekretu horren bidez, batetik, Bizkaiko Foru Aldundia-



ren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Erregelamendua aldatzen da; eta, bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida onartzen da.

Xedapen hau onartzeko eskumenari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua da horretarako organo eskuduna, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17.1.4 eta 17.2 artikuluen arabera.

Hori dela bide, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak bileran azterturik, honako hau.

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra. — Dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea

Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailak garapenerako lankidetzaren, sensibilizazioaren eta gizartea eraldatzeko hezkuntzaren, ekintza humanitarioaren, genero-berdintasunaren eta eremu estrategikoari lotutako urte anitzeko proposamenen arloetan 2025eko ekitaldian dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ditu. Hona hemen proposamen horien testua:

XEDAPEN GEHIGARRIA

Xedapen Gehigarri Bakarra. — Aurrekontuko diru-izendapenak

1. Foru dekretu honen arabera eman daitezkeen dirulaguntzak

II. kapitulua

- Partida: 0906/232115/45100 2007/0038.
- 2025eko ekitaldia: 2.880.000,00 euro.
- Partida: 0906/232115/75100 2007/0038.
- 2025eko ekitaldia: 120.000,00 euro.

III. kapitulua

- 0906/G/232115/45100/2025 partida 2007/0038.
- 2025eko ekitaldia: 630.000,00 euro.

IV. kapitulua

- 0906/G/232115/45100/2025 partida 2007/0038.
- 2025eko ekitaldia: 240.000,00 euro.

V. kapitulua

- 0906/G/232115/45100/2025 partida 2007/0038.
- 2025eko ekitaldia: 80.000,00 euro.

VI. kapitulua

- 0906/G/232115/45100/2025 partida 2007/0038.
- 2025eko ekitaldia: 800.000,00 euro.

VII. kapitulua

- 0906/G/232115/45100/2025 partida 2007/0038.



- Urte anitzeko gastua: 5.400.000,00.
- 2025eko ekitaldia: 1.800.000,00 euro.
- 2026ko ekitaldia: 1.800.000,00 euro.
- 2027ko ekitaldia: 1.800.000,00 euro.

2. Foru dekretu honen bidez araututako proiektuak finantzatzeko izendatutako funtsak agortzen ez badira, funtsok erabili ahal izango dira dekretuaren beste edozein kapitulutan proiektu gehiago onesteko, baremazio-batzorde teknikoak proposamena eginda.

3. Jasotako eskabideen arabera —gastu korrontea edo inbertsioa— IV. Kapituluaren —451.00 saila— eta VII. Kapituluaren —751.00 saila— artean egokiak diren kreditu transferentziak egitea baimendu da, eta horretarako ez da foru dekretu hau aldatu behar-ko sail bien guztizko zenbatekoak bertan ezarritako guztizko zenbatekoa gainditzen ez badu.

4. Abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsitako Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bateginaren 56.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, foru dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak baliozkoak izateko, kreditu egokia eta nahikoa egon behar da dagokion ekitaldian.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa. — Arau bidez gaikuntza

Ahalmena ematen zaio Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuari dekretu hau osatzeko edo garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko.

Azken Xedapenetako Bigarrena. — Indarrean jartzea eta indarraldia

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Xedapen Derogatzailea Bakarra

Foru Dekretu hau indarrean sartzen denean, indargabetuta geratuko da martxoaren 15eko 25/2022 Foru Dekretuaren 66. artikulua, urtarrilaren 10eko 1/2023 Foru Dekretuaren 66. artikulua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 18ko 4/2024 Foru Dekretuaren 66. artikulua VII. kapituluaren parte hartzeko debekuari buruzkoa. Foru Dekretu horren bidez, garapenerako lankidetzarako eta gizarte-eraldaketarako hezikuntzarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan, hurrenez hurren.

Bilbon, 2025eko urtarrilaren 9an.

Enplegua, Gizarte Kohesioa
eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua,
TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA



2025EAN GARAPENERAKO PROIEKTUAK, GIZARTE-ERALDAKETARAKO, SENTSIBILIZAZIO- ETA HEZKUNTZA-PROIEKTUAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— *Xedea*

1. Foru dekretu honen bidez, arautu egiten dira Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak 2025ean gizarte-eraldaketa lankidetzaren, sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak egiteko, garapenerako lankidetzaren genero-ikuspegia sartzeko, larrialdietarako eta ekintza humanitarioko ekintzak egiteko eta eremu estrategikoari lotutako urte anitzeko proposamenetarako emango dituen dirulaguntzen oinarriak eta deialdia.

- Foru dekretu honen bidez honako dirulaguntza mota hauek arautzen dira:
 - Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako dirulaguntzak irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat (II. Kapituluak).
 - Gizartearen eraldatzeko sentsibilizazio eta/edo gizartearen eraldatzeko hezkuntza proiektuetarako dirulaguntzak (III. Kapituluak).
 - Herri txiroetarako edota Bizkaian ekintza zehatzak egiteko dirulaguntzak (IV. Kapituluak).
 - Sorburuan laguntza teknikoak kontratatzeko dirulaguntzak, tokiko erakunde bazkideen genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketa errazteko (V. kapituluak).
 - Ekintza humanitariorako eta larrialdietarako dirulaguntzak (VI. Kapituluak).
 - Esparru estrategikoarekin lotutako prozesuetarako dirulaguntzak (VII. kapituluak).

2. artikulua.— *Erakunde onuradunak*

- Erakunde onuradun izan daitezke baldintza hauek betetzen dituztenak:
 - Euskadiko Autonomia Erkidegoko kasuan kasuko erregistroan eratu eta izena emanda egotea, gutxienez deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu baino bi urte lehenagotik.
 - Erakundearen estatutuetan jasota izatea jardueraren nagusien artean garapenerako lankidetzaren arloan egiten duela.
 - Irabaziak lortzeko asmorik ez izatea.
 - Egoitza soziala edo ordezkari iraukorra Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. Ordezkari iraukorra izateko, erakundearen egiturarik garrantzitsuenak Bizkaian egon behar dira, eta hori agiriaren bidez frogatu behar da.

Horretarako, Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakundeak (GGKE) Bizkaian kontratatutako pertsonen zerrenda aurkeztu behar du, Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakiekin. Bizkaian erabiltzen duten/dituzten lokal(ar)en deskripzioa ere aurkeztuko da, eta bertan adieraziko da lokalek zenbat metro karratu eta zenbat ekipo informatiko eta komunikazio ekipo dituzten, jendaurreko ordutegia, eta, halakorik badago, egoitzak dituen beste erabilera batzuk, GGKEen ohiko lanarekin zerikusia duten erabilerekin gain.

Kasu horretan, ordezkari iraukorrek eskabidea aurkezteko zuzeneko erantzukizuna bereganatzen du, eta proiektuaren dokumentazioa Bizkaiko bulegoan izateko konpromisoa hartzen du.

- 2024an Bizkaiko Lurralde Historikoan gizartearen eraldatzeko gutxienez bi sentsibilizazio- edo hezkuntza-jardueraren egin izana. Ez dira sentsibilizazio-ekintzat hartuko komunikabideetan egiten diren esku-hartzeak, ezta GGKEarekin lotura zuzena duten taldeei zuzendutako topaketak edo jarduerak ere.



f) Ezin dute izaera bereko dirulaguntza edo laguntzak direla-eta hasi den itzulketarekin edo zigor-prozeduraren batean sartuta egon.

2. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedatutakoa aplikatuta, arau horretako 12. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan jasotako egoeretakoa batean dauden erakundeak ezin izango dira izan dirulaguntza hauen onuradun.

Horretarako, onuradun izateko 12. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan ezarritako debeku-egoeretakoa batean ere ez daudela justifikatzeko, erakundeek lekukotasun judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak erabili ahal izango dituzte, dagokion araudian ezarritakoaren arabera, edo, bestela, administrazio-ziurtagiria aurkeztu beharko dute, kasuaren arabera. Agiri horren ordez, administrazio-ko agintari baten edo notario publiko baten aurrean egindako erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu ahal izango da.

3. Erakundeen partzuergoek aurkezturiko proiektuek ere dirulaguntza jaso ahal izango dute. Partzuergoko erakunde guztiek bete eta egiaztatu behar dituzte aurreko idatz-zatietan adierazitako baldintzak.

Partzuergoko erakundeek proiektuaren erantzukizun bateratua bereganatzen dute; gainera, egoitza bakarra aukeratuko dute, espedientearen jakinarazpen administratiboetarako. Erakunde bakoitzak proiektuan duen parte hartzearen portzentajea, baita bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak ere, kasuan kasuko eskabidea aurkeztean egin beharko duten hitzarmenean zehaztuko dira. Hitzarmen horretan erakunde bakoitzak bere parte hartze portzentajearen erantzukizun zuzena eta proiektu osoaren erantzukizun subsidiarioa bereganatzen dituela adierazi beharko da.

4. Erakunde bat ezin izango da inola ere onuradun izan antzeko proiektu edo proiektu beragatik, baldin eta Gizarte Kohesioeko Zuzendaritza Nagusiak alde aurretik diruz laguntzen badu deialdi honetan edo beste edozein deialditan.

3. artikulua. — *Emateko araubidea*

Dirulaguntzak lehiaketa bidez emango dira, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuaren foru agindu baten bidez. Hain zuzen ere, lehiaketan berriazko artikuluetan ezarritako irizpideen arabera puntuaziorik handiena lortzen dutenei emango zaie dirulaguntza, eta beti ere aurrekontu-sailean ezarritako zenbatekoa muga izanik.

Ondorioz, aurrekontu-partida horren mugak galarazten badu balorazio-irizpideen arabera ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu duten eskabide guztiei foru-dirulaguntzak esleitzea, puntuazio handiena dutenei esleitzea proposatuko da, eskabide bakoitzaren lehenetsun-hurrenkerari jarraituz, dagokion zenbatekoa agortu arte.

Eskaera batek baino gehiagok puntuazio bera lortzen badute eta horietarako zenbateko erabilgarria ez bada nahikoa dagozkien dirulaguntzen zenbateko osoari erantzuteko, aplikatutako dirulaguntzaren ehunekoa murriztu egingo da, erabilgarri dagoen aurrekontua agortu arte, murrizketa horrek proiektuaren bideragarritasunari eragiten ez dion neurrian.

4. artikulua. — *Eskabideak aurkeztea, agiriak eta epeak.*

1. Dirulaguntza jaso nahi duten erakundeek egoitza elektronikoko bidez aurkeztu beharko dute eskabidea, 14. 2.a. artikuluan xedatutakoaren arabera 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena. (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>).

2. Proiektuak aurkezteko berriazko ereduak eskuragarri egongo dira web-orriko prozeduren katalogoan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan. (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>).

3. Eskatzen den dokumentazioaz gain, nahitaezko dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:

a) Erakunde eskatzailearen sozietate-estatutuak.



- b) Erakunde eskatzailea behar den administrazio erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duen agiria.
- c) Tokiko erakundeak erregistro administratibo egokian izena emana duela egiaztatzen duen agiria, II, IV (IV-A proiektuak), V, VI eta VII. Kapituluaren kasuetan.
- d) Dirulaguntzarako eskabidea aurkezteak ekarriko du baimena ematea Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari, Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak eskatzeko, betiere eskatzaileek berriaz kontrakoa adierazi ez badute. Baimen hori ematearen kontra egonez gero, erakundeak aurkeztu beharko ditu agiri horiek.
- e) Itzulketara edo zehapen prozeduraren batean ez egotearen adierazpena (halako dirulaguntzen edo laguntzen eremuan hasitako prozedura).
- f) Hartzekodunen zerrenda, kontua zabalik dagoen finantza erakundeak behar bezala beteta.
- g) Tokiko bazkidearekiko hitzarmen-proiektua, II, IV (IV-A proiektuak), VI eta VII. Kapituluaren kasuetan.
- h) Dirulaguntza erakundearen partzuergoek eskatzen badute, foru dekretu honetako 2.3. artikuluan ezarritako hitzarmena.
- i) Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretak batean ere ez dagoela eta 13. artikuluan jasotako betebeharrak betetzen dituela dioen adierazpena.
- j) 2024an Bizkaiko Lurralde Historikoan gutxienez sentsibilizazio jardura bi egin izana egiaztatzen duen dokumentazioa.

4. Aurretik aurkeztu diren eta dagoeneko Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dauden dokumentuen kasuan, data zehatz bati ez dagozkion agirien ordez, zinpeko deklarazio bat aurkeztu ahal izango da, non adieraziko duten agiri horiek aldaketarik ez dutela izan.

5. Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Saileko Gizarte Kohesiorako Zuzendaritzak, Bizkaiko Elkarreragingarritasun-nodoaren bidez eta dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, aurkeztutako eskabideen administrazio-izapiderako eskatutako pertsona eta erakunde interesdunen datuak egiaztatuko eta kontsultatuko ditu, 39/2015 Legearen 13., 28. eta 53. artikuluetan aitortutako eskubideei kalterik egin gabe.

Arrazoi teknikoengatik ezin bada informazioa beste administrazio publiko batzuetatik zuzenean lortu, Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Saileko Lankidetzara eta Aniztasunaren Kudeaketa Atalari izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak beharrezko agiri eta informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango dizkie erakunde eskatzaileei, aurkezturiko eskabidea behar bezala ebaluatzeko eta ebazteko.

6. Eskabideak aurkezteko epea:

— VII. kapitularako: 2025eko urtarrilaren 14tik 2025eko otsailaren 13ra, 13:30ean.

— Gainerako kapituluarentarako: 2025eko martxoaren 14tik 2025eko apirilaren 14ra arte, 13:30ean.

5. artikulua.—Eskaberetan atzemandako akatsak zuzentzea eta espedientea artxibatzea

Eskabideekin batera dekretu honen 4. artikuluan aipatutako nahitaezko dokumentazioa aurkeztu ez bada, erakunde eskatzaileari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako berriazko ebazpena eman ondoren, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.1 eta 68.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera.



Erakunde eskatzaitetako batek eskabidea bertara joanez aurkezten badu, zuzendari-tzak errekerimendua egingo dio, aurkezpen elektronikoaren bidez zuzen dezan. Ondorio horietarako, eskabidearen aurkezpenaren data zuzenketa egin den data izango da.

6. artikulua. — Izapidetzea, ebazpena eta helegiteak

1. Dirulaguntzak Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuaren foru aginduaren bidez eman eta ukatuko dira, horrexetarako berariaz eratzen den Batzorde Teknikoak proposatutakoaren arabera.

Batzorde Teknikoa, deialdi honetako kapitulu guztientzat, honako kideek osatuko dute:

- a) Batzordeburua: Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendari Nagusia.
- b) Batzordekideak: Herritarren Eskubideak eta Lankidetzaren Sustatzeko Teknikari Er-tainak.
- c) Idazkaria: Lankidetzaren eta Dibertsitatearen kudeaketaren ataleko burua

Batzorde Teknikoak gaiaren arabera beharrezkotzat jotzen den aholkularitza izan de-zake.

2. Onuradun bati dirulaguntza ematen dion foru-agindua jakinarazitakoan, hark ha-mar eguneko epea izango du onartzeko; epe horretan ez badu beren-beregi ezer adie-razten, isilbidez onartutzat joko da.

3. Laguntzak ematen dituen ebazpenean baldintzak ezarriko dira, esate baterako proiektua burutzeko epea, ekintzak egin direla zuzentzeko modua eta horretarako dagoen epea, etab., bai eta erakunde onuradunen betebeharrak ere, foru dekretu honetan eza-rritakoaren arabera.

Kasu bakoitzerako baldintza bereziak ezarri ahal izango dira baldin eta jardueren ezaugarri bereziak edo beste inguruabar batzuk kontuan hartuz komenigarria bada.

4. Egiaztatzen ez bada erakunde eskatzaileak Bizkaiko Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordainduta dituela, eskaera ezetsiko da. Era berean, eskaera ezetsiko da dagozkion partidetan erabilgarri dauden kredituak agortzen dire-nean.

5. Eskatutako laguntza ematen edo ukatzen duten ebazpenek administrazio bidea agortuko dute. Haien aurka elkarte interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete horiek eman dituen organoari, hilabeteko epean foru agindua jaki-narazi eta biharamunetik kontaktatzen hasita, edo zuzen-zuzenean aurkaratu ahal izango dituzte Administrazioarekiko Auzibide Jurisdikzioan.

6. Eskabideak ebazteko epea sei hilekoa izango da gehienez, eskabidea jasotzeko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitu baino lehen berariazko ebaz-penik eman ezean, eskabidea ezetsitatzat joko da.

7. Ematen diren dirulaguntzen publikitateari dagokionez, Bizkaiko Aldizkari Ofizia-lean argitaratuko da zer dirulaguntza ematen diren, eta hor adieraziko da, batetik, au-rrekontuko zer programari eta kredituri egozten zaizkion, eta, bestetik, adjudikaziodun gertatu diren entitateen eta bakoitzari emaniko diru-kopuruen zerrenda bat.

8. Atal honetan xedatutakoaz gain, VII. kapitulari dekretu honen 64. artikuluan ja-sotako izapidetze-berezitasunak aplikatuko zaizkio.

7. artikulua. — Dirulaguntzak ordaintzea

1. Dirulaguntzak zehazten den prozeduraren arabera onartu ondoren, eta proze-duraren ebazpenaren jakinarazpenetik gutxienez hamar egun igarota, emandako dirula-guntzaren %100 ordaintzeko izapidea egingo da, eta horretarako ez zaio inolako berme-rik eskatuko erakunde onuradunari.

2. Dirulaguntza ez da ordainduko, izapidetzen ari den bitartean zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak ez baditu edo dirulaguntzak itzultzeko pro-zedura ebazpenaren bidez zorduna bada.

**8. artikulua. — Hitzarmenak tokiko kidearekin**

1. Dirulaguntza ematea ebatzi ondoren, erakunde adjudikaziodunak erantzukidetasuneko hitzarmena sinatuko du tokiko kidearekin proiektua garatzeko (III, IV-B eta V. Kapituluako proiektuetan izan ezik). Hitzarmen hori Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendaritza Nagusia aurkeztu beharko da bi hilabeteko epean.

2. Hitzarmen horretan, gutxienez honako hau jaso beharko da:

- a) Alderdiak dirulaguntzak arautzen dituen foru dekretuaren edukia berri dutela egiaztatzea, eta horren ondoriozko betebeharrak betetzeari buruzko berariazko konpromisoa.
- b) Proiektuaren jardueren hasiera data, eta proiektuaren bukaerarako aurreikusitako data.
- c) Dirulaguntzaren bidez lorturiko ondasun higigarri eta higiezin guztiak proiektuaren helburu den biztanleriarenak izango direla dioen berariazko adierazpena; hori ezinezkoa denean, tokiko kidearen jabetzakoak izango dira, eta dirulaguntzen helburua den erabilaren jarraitasuna bermatu beharko da.
- d) Herri bakoitzean mekanismorik egokiena ezartzea, alderdi bien artean proiektuaren betearazteari dagokionez sor daitezkeen gatazka guztiak konpontzeko.

9. artikulua. — Erakunde onuradunen betebeharrak

Erakunde onuradunek 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan zerrendatzen diren eginbeharrak bete beharko dituzte, bereziki hauek:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzaren bidez martxan jarritako jardueretan, Aldundian indarrean dagoen logotipoa jarri beharko da publizitatean eta jardueraren horien zabalkunderako ekintzetan. Halaber, elkarteek jardueren berri eman beharko diote dirulaguntza eman duen sailari, jarduerak egin aurretik.
- b) Helburu bererako edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak jaso izanaren berri eman beharko diote Gizarte Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari, eta itzulketagutunaren kopia aurkeztu beharko dute, itzulketarik egin badute.
- c) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen marxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan printzipio orokorrak eta betebeharrak bete beharko dituzte.
- d) Erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du, bere ahalaren arabera, dekretu honetan oinarrituta antolatzen diren zerbitzu, ekitaldi edo jarduerak guztietan oztopo arkitektonikoak eta komunikaziorako oztopoak ezabatuz.
- e) Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan xedatutakoarekin bat, erakunde onuradunek nahitaez bete behar dituzte II. tituluaren publikotasun aktiboari dagokionez adierazitako betebeharrak.

10. artikulua. — Zuriketak

Justifikazio-inprimakiak web-orriko prozeduren katalogoan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (<https://ebizkaia.eus/eu/hasiera>) aurkitu ahal izango dira.

11. artikulua. — Ez betetzeak eta itzulketak

1. Dirulaguntza jasotzen duten erakunde batek dekretu honetan, emate ebazpenean edo gainerako arau aplikagarrietan ezarritako baldintzetako bat betetzen ez badu edo, halaber, baldin eta justifikatzeko betebeharra osorik edo zati baten ez badu betetzen, kasuan kasu egokia izango den itzultzeko prozedurari ekingo zaio eta erakunde onuradunek derrigorrez itzuli beharko dute, hala osorik nola zati baten, jaso dituzten zenbateko horiek eta baita horiei dagozkien berandutza korrituak ere, egokiak izango diren gainerako ekintzak gorabehera. Kopuru horiek sarrera publikotzat hartuko dira.



2. Hurrengo kasuetan, dirulaguntza gisa jasotako kopuruak eta 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan ezarritako berandutze-interesak (dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketaren bidez kotasuna erabakitzen den datara arte) itzuli beharko dira, osorik edo zati bat, kasu hauetan:

- a) Dirulaguntza lortzeko, bete beharreko baldintzak faltsutu edo laguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkututzen direnean.
- b) Xedea, jarduera, proiektua edo dirulaguntza emateko funtsa den jokaera oso-osorik edo zati batean betetzen ez denean edo epez kanpo betetzen denean.

Diruz lagundutako ekintzak egin direla zurrizko ezarritako epeak igaro eta ez bada egiaztatu eta justifikatu ekintza guztiak aurrez kusi bezala burutu direla, edo egin eta justifikatutako gastua dirulaguntza emateko foru aginduan jarduerarako onartutako kostua baino txikiagoa izan bada, baldintzak ez direla bete ulertuko da.

Hala ere, kasu bi horietan, dirulaguntzaren xedea eta helburua betetzat jotzen badira, dirulaguntzaren zenbatekoa birdoitu egingo da, benetan justifikatu edo burututako kostuen arabera. Horretarako, proportzionaltasun irizpidea erabiliko da, dirulaguntza emateko ezarritako irizpide eta mugei dagokienez.

Bestetik, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren Erregelamenduaren 71. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, dirulaguntzaren onuradunak aurkeztutako justifikazioan adierazten badu dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan aldaketak egon direla, eta aldaketa horiek ebazpena aldatzea eragin ahal zutela eta aldaketak onartzeko aurretik bete beharreko baimen administratiboko izapidea bete gabe egin direla, dirulaguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onar dezake, betiere onartze horrek hirugarrenen eskubideei kalterik eragiten ez badie; hala ere, horrek ez du salbuetsiko onuraduna maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

- c) Justifikazioaren betebeharra ez betetzea edo behar adinako justifikaziorik ez egitea.
- d) Indarrean dagoen arautegian jasotako zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea.
- e) Indarrean dagoen arautegian xedatutako egiaztapeneko eta finantza-kontrolako jardunak direla eta, aurre egin, aitzakiak jarri, eragozpenak ipini edo ezetza ematen denean, baita era kontabilitateko nahiz erregistroko betebeharrak edo agiriak gordetzekoak betetzen ez direnean, horrek guztiak ondoko hauek egiaztatzeko ezintasuna dakarrenean: jasotako funtsen erabilera egokia ote den, helburua lortu ote den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna norainokoak diren, edota xede berbererako beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen batek -naziokoa zein Europar Batasuneko edo nazioartekoa- emandako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderik egon den.
- f) Administrazioak erakunde laguntzaileei eta pertsona onuradunei ezarritako betebeharrak —onuradunok dirulaguntza ematen zaiela eta bereganatzen dituzten konpromisoak barne— betetzen ez direnean, baldin eta horrek helburuak lortzeko, jarduera egiteko, proiektua burutzeko edo dirulaguntza ematean aintzat hartu den jokabidea hartzeko erari eragin badio edo horrekin zerikusia badu.
- g) Administrazioak erakunde laguntzaileei eta erakunde onuradunei ezarritako betebeharrak —baita onuradunok dirulaguntza ematen zaiela— eta bereganatzen dituzten konpromisoak ere, aurreko idatz-zatian aipatutakoek bestelakoak- betetzen ez direnean, baldin eta horrek guztiak ondoko hauek egiaztatzeko ezintasuna badakar: jasotako funtsen erabilera egokia ote den, helburua lortu ote den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna norainokoak diren, edota xede berbererako beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen batek —nazioartekoa zein Europar Batasuneko edo nazioartekoa- emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik egon den.



- h) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. artikulutik 109. era bitartean xedatutakoa dela bide, dirulaguntza itzuli beharra dakarren erabakia hartzea.
- i) Dirulaguntzari buruzko arau erregulatzaileretan xedatutako gainerako balizkoetan.

3. Baldintzak betetzen ez direnean, emaniko dirulaguntzaren zati bat edo laguntza osoa itzultzeko prozedura legez aurrez ikusitakoa izango da. Prozedura, Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak hasi eta tramitatuko du eta Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuak ebatziko du, erakunde onuradunak esan beharrekoa entzun eta gero.

Aplikatu beharreko arauak ez betetzeagatik dirulaguntza itzultzeko prozedura abiarazten bada, hamabi hilabete pasatu baino lehen ebatzi beharko da.

12. artikulua.— Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea

Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi duen 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (dekretu honek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatu du), erakunde onuradunak dirulaguntza Bizkaiko Foru Aldundiari itzultzea erabaki dezake hark ez eskatu arren.

Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatuak ditu onuradunak itzulketa benetan egin duen unera arte, Dirulaguntzen foru arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dirulaguntzaren itzulketa, onuradunak eskatuta, ordain-gutun egokiaren bidez egin beharko da. Gutun hori, eskatzen denean, dirulaguntza kudeatu duen zerbitzuaren dependenzietan izapidetuko da. Aipatutako ordain-gutunean itzuli beharreko zenbatekoa kontsignatuko da (printzipala eta interesak), modeloaren kodea eta sarreraren arrazoia. Horrekin batera, itzuli beharreko dirulaguntza ere aipatu beharko da.

13. artikulua.— Ebazpena aldatzea

Dirulaguntza emateko ebazpena emandakoan, eta hura emateko aintzat hartutako baldintzak aldatuko balira, erakunde onuradunak ebazpena aldatzeko eska dezake, eta hura onartu ahalko da hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Esleitzeko jatorrizko baldintzak aldatutzat joko dira, eta beraz, ebazpena aldatzeko eskabidea baimendu ahalko da, diruz lagundutako jarduerak ezarritako epean egitea teknikoki ezinezkoa bada, edo aurreikusitako jarduerak egitea galarazten duen beste edozein inguruabar gertatzen bada.

Jarduera burutzeko epea amaitu baino hilabete lehenago aurkeztu behar da ebazpena aldatzeko eskabidea.

14. artikulua.— Dirulaguntzen bateragarritasuna

Emandako dirulaguntza honekin batera beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk jaso daitezke xede berarekin, baldin eta Estatuko, Europar Batasuneko zein nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoak badira. Baina kontuan hartu beharko da beste dirulaguntza horiek arautzen dituen araudiak horren inguruan ezartzen duena.

Hala ere, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, inola ere ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Horri dagokionez, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen duen erakundeak horren berri eman beharko dio organo emaileari, zuritzeko moduan, eta itzulketa-gutunaren kopia aurkeztu beharko dute.

15. artikulua.— Azpikontratatzeari buruzko baldintzak

Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeari buruzko baldintzak eta debekuak maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 53. artikuluan xedatutakoak arautuko ditu.

**16. artikulua.— *Arau-haustek eta zehapenak***

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan arau-hauste administratibo xedatutako ekin-tzen eta ez-egiteen arduradunak bertan araututakoaren arabera zehatuko dira.

17. artikulua.— *Datuen babesa*

Deialdi honetako dirulaguntzetarako eskabideetan adierazten diren informazioek eta datuek Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren babesa dute.

18. artikulua.— *Araudi orokorra*

Foru dekretu honetan ezarritako dirulaguntzei dekretuan bertan xedatutakoa eta diru-laguntzak emateko Foru aginduetan ezartzen diren baldintzak aplikatuko zaizkie.

Dekretu honetan ezarri ez diren gaietan ondokoak aplikatuko dira: urriaren 1eko 39/2015 Legea; 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde His-torikoaren Aurrekontu Erregelamendu Orokorra onesten duena; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Lege Orokorra; maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua; eta Diru-laguntzen Erregelamendua oneste duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua.

II. KAPITULUA**GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUETARAKO
DIRULAGUNTZAK IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEENTZAT****19. artikulua.— *Xedea***

Kapitulu honen bidez, laguntzak eman nahi dira, 2025eko ekitaldian, giza garapene-rako lankidetza-ekintzak egiteko, txirotutako herrietan, aldaketa ekonomikoak, sozialak, politikoak, kulturalak, ingurumenekoak, emakume eta gizonen arteko botere harremane-takoak bultzatzeko, irabazi-asmorik gabeko erakundeen bitartez. Erakundeon jarduera nagusietako bat garapenerako lankidetza izan behar da; adibidez, GGKEak, gizarte mugimenduak erlijio kongregazioak, fundazioak eta antzekoak izan daitezke.

20. artikulua.— *Erakunde onuradunak*

Dirulaguntza lortzeko, eskaria egiten duen erakundeak 2. artikuluan ezarritako bete-kizunak bete beharko ditu.

21. artikulua.— *Dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak*

Dirulaguntza jaso dezakete txirotutako herrialdeetako biztanle talde edo eskualde behartsuenen beharrianak asetzeko eta haien eskubideak betearazteko proiektuek. Txirotutako herrialdeak, berriz, Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundeko (ELGA) Garapenerako Laguntza Batzordearen (GLB) laguntza jasotzaileen zerrendan ageri direnak izango dira.

22. artikulua.— *Proiektuen betekizunak*

1. Dirulaguntza jasotzeko, proiektuek honako betekizun hauek bete behar dituzte:
 - a) Txirotutako herrietako bertako kide baten bidez egitea. Bertako kide hori nortasun juridikodun erakundea izan behar da, ez du izan behar irabazteko asmorik, eta behar bezala eratuta eta behar den erregistroan izena emanda egon behar da. Kide hori erakunde bakarra edo bi erakunde edo gehiagoren partzuergoa izan daiteke. Partzuergoa bada, bertako erakunde bakoitzak adierazitako betekizunak bete behar ditu.
 - b) Arraza, sexu, erlijio edo iritzien ondoriozko diskriminaziorik ez egotea.
 - c) Proiektuaren iraunaldi osoan genero ikuspegia sartzea.
 - d) Ekintza berrien finantzaketari egokitzea. Ez dira inoiz ere lehendik egindako ekintzak finantzatzeko erabiliko. Halaber, ez dira finantzatzeko 2025. urtearen aurreko urteetan egindako gastuak.



- e) Deialdiaren urte naturalean hastea, edo erakunde eskatzaileari dirulaguntza ordaindu eta hurrengo bi hilabeteetan zehar.
 - f) Proposatutako ekintzak gehienez 24 hileko epean burutzeko moduan planifikatu behar dira.
2. Erakunde eskatzaileek bi proiektu, gehienez, aurkeztu ahal dituzte, baldin eta proiektu bietarako eskatzen den zenbateko osoa 120.000 eurotik gorakoa ez bada.
3. Erakunde eskatzaileek adierazi behar dute deialdira aurkeztu dituzten ekintzetarako beste laguntzarik eskatu edo beste erakunderen baten laguntzarik jaso duten; hala bada, haien zerrenda aurkeztu behar dute, eta laguntza bakoitza zenbatekoa eta zertarako izan den zehaztu.

23. artikulua. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Honako hauek dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuak: proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzun dioten eta epearen barruan egindako beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira.
2. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak kostu zuzenak izango dira, ondoren adierazitakoaren arabera:
- a) Lurren erosketa.
 - b) Eraikinen eta azpiegituren erosketa, eraikuntza edo birgaikuntza.
 - c) Ekipoak eta materialak erostea eta garraiatzea.
 - d) Tokiko langileen kostuak.
 - e) Langile atzerriratuen kostuak. Ezin dira emaniko dirulaguntzaren zenbatekoaren %10a eta hilean 3.000 euro gordin baino gehiago izan. Proiektuaren inguruabar bereziak direla-eta, ehunekoa handitu behar balitz, igoera horren premia zurtzeko memoria laburra sartu beharko da.
 - f) Proiektuari lotutako prestakuntza gastuak.
 - g) Proiektuaren funtzionamenduari loturiko gastuak, proiektua herri hautatua gartzeko behar diren material suntsikorra eta hornidurak eskuratzeari loturikoak.
 - h) Mikrokredituak emateko txandakako funtsaz hornitzea. Kasu horretan, funtsa kudeatzeko araudia erantsi behar da.
 - i) Proiektuaren helburu diren biztanleen joan-etorrien gastuak.
 - j) Banku-zerbitzuak edo antzekoak.
 - k) Proiektuaren auditoretza-gastuak: 6.000 euro, gehienez.
3. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak zeharkako kostuak izango dira, ondoren adierazitakoaren arabera: GGKE eskatzailearen egoitzako administrazio, kudeaketa eta langileria gastuak, proiektuaren identifikazio, formulazio, jarraipen eta ebaluazioari dago kienez. Gastu horiek ezin dira izan emaniko dirulaguntzaren zenbatekoaren %12 baino handiagoak.

24. artikulua. — Aukeratzeko eta baloratzeko irizpideak

1. Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak onetsiko diren proiektuak aukeratuko ditu, eta dirulaguntzak emateko jarraian adieraziko diren irizpideak eta balorazio-mugak hartuko ditu aintzat (100 puntu gehienez).
2. Kapitulu honetara aurkeztutako proiektuak lau irizpide multzoren arabera baloratuko dira:
- a) 1 taldea. Proiektuaren kalitatearekin loturiko irizpideak (25 puntu, gehienez).
 - 1. Diagnostikoa (proiektuaren planifikazio eta identifikazio prozesuaren analisi argia eta zehatza, lotutako/eraginpeko biztanleen ezaugarriak eta konpondu nahi den arazoaren deskripzioa): 11 puntu, gehienez.
 - 2. Koherentzia (helburua eta justifikazioaren lotura, eta jardueren azalpena): 3 puntu, gehienez.



3. Baliabideak (banakatutako partidak eta proformako fakturak): 3 puntu, gehienez.
 4. Jarraipena (adierazleen formulazioa): 4 puntu, gehienez.
 5. Iraunkortasuna (iraunkortasuneko bitartekoen zenbatespena, abala eta epe luzerako estrategia): 4 puntu, gehienez.
 - b) 2 taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko irizpideen araberrako edukia (20 puntu, gehienez).
 1. Lehentasun geografikoa (Afrikako kontinentea): 7 puntu, gehienez.
 2. Proiektuaren eredua: 13 puntu, gehienez.
 - c) 3 taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko zeharkako lerroak (32 puntu, gehienez).
 1. Eskubideen ikuspegia (urratutako eskubideen eta eskubideen, betebeharren eta laguntza-erakundeen titularren azterketa; eskubide- eta betebeharrak eta jarduerak biek): 9 puntu, gehienez.
 2. Genero-berdintasuna eta aniztasun sexuala (bidezko harremanak, erakunde feministak eta sexu-aniztasuna sustatzea): 14 puntu, gehienez.
 3. Ikuspegi ekologikoa (ingurumenaren eta bizitzaren iraunkortasunerako jardueren azterketa): 9 puntu, gehienez.
 - d) 4 taldea. Eragile-partehartzaileak (23 puntu, gehienez).
 1. Eragile eskatzailea (gizarte oinarria, boluntariora, gaitasuna eta kaudimena, erakunde eskatzailearen eta toki-erakundearen arteko harremana, sareak eta aliantzak): 12 puntu, gehienez.
 2. Toki eragilea (lurraldean errotuta egotea, esperientzia, sareak eta aliantzak): 11 puntu gehienez.
3. Proiektuak barematzeko bakarrik hartuko da kontuan dirulaguntzarako eskubi-dean jasotako informazioa, bai eta erakunde eskatzaileak bere kabuz gehi ditzakeen honako eranskin hauetan jasotzen duena:
- Aurrekontuaren azalpena.
 - Proformako fakturak.
 - Bidegarritasun finantzarioaren plana.
 - Jasangarritasunaren abala.
 - Entitate publiko baten estrategia-agiria.
 - Borondatezko langileen akreditazioa.
 - Lan-sareetako parte hartze aktiboaren ziurtagiria.
- Aurkeztuz gero, ordena horretan aurkeztu behar dira eranskinok, izen horixekin. Ez da kontuan hartuko paragrafo honetan aipaturikoez bestelako informazio-iturririk.

25. artikulua. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Kapitulu honetako dirulaguntzen zenbatekoa 15.000 euro izango da gutxienez eta 120.000 euro gehienez.
2. Proiektu hautatuek eskaturiko laguntzaren %100 jasoko dute.

Hala ere, behin proiektuak antolaturik (puntuazio handienetik txikienera), azken proiektua gehitu ahal izango da, ehuneko baino gutxiagoko laguntza bat emanaz, baldin eta ez bada arriskuan jartzen jardueraren bideragarritasuna. Jardueraren bideragarritasuna arriskuan jartzen ari dela ulertuko da, baldin eta eskatutakoaren %75 baino gutxiago eman daitekeenean.

26. artikulua. — Jasotako dirulaguntzaren justifikazioa egiteko modalitatea

1. Dirulaguntza jaso duten erakundeek Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren aurrean justifikatu beharko dute jasotako dirulaguntza, Dirulaguntzen Foru



Erregelamenduaren 59. artikuluan araututako modalitatearen arabera: justifikazio kontua erabili eta auditorearen txostena aurkeztu.

Kontu-auditorea Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren menpeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule gisa inskribatuta egon beharko da.

2. Dirulaguntzaren xedea atzerrian egingo den jarduera edo proiektu bat bada, erregelamenduko artikulua honetan aurrekusten den araubidea berrikusketa egin behar den herrialdean jardunean dauden kontu-auditoreei dagokiela ulertuko da, betiere herrialde horretan araubide bat badago lanbide horretan aritzeko gaitzen duena.

Herrialde horretan ez badago kontu-auditorean aritzeko gaitzen duen araubiderik, herrialde horretan finkatutako kontu-auditore batek egin ahalko du atal honetan zehazten den berrikusketa, betiere onuradunak izendatu eta dirulaguntza ematen duen organoak baimentzen badu.

3. Onuradunak kontu-auditorearen esku jarri behar ditu Dirulaguntzen foru arauaren 13.1.f) artikulua aplikatuz eskatu ahal zaizkion liburu, erregistro eta agiri guztiak. Onuradunaren betebeharra da, halaber, horiek guztiak zaintzea, Foru arau horretan aurrez ikusten diren egiaztapen- eta kontrol-jardueretarako.

4. Kontu-auditorearen lanaren gaineko berrikusketa eta kalitate-kontrola egin ahalko da, Foru Administrazioako kontrol-organok zehazten duen eran, eta kontu-auditoreak organo horren esku jarri behar ditu berak emandako txostenaren oinarri den informazio guztia.

5. Justifikazio-kontuaren berrikuspenak eragindako gastua diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko da 6.000 eurora arte (BEZik gabe).

27. artikulua. — Justifikazio-kontuaren ezaugarriak

1. Auditoreak berrikustekoa den justifikazio-kontua egoitza elektronikoa eta prozedura-katalogoan dagoen ereduaren arabera egin beharko da, eta honako agiri hauek izan beharko ditu:

- a) Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazita.
- b) Memoria ekonomiko bat, honako informazio hau jaso behar duena:
 1. Diruz lagundutako proiektuari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria.
 2. Aurreko atalean aipatzen den gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko zerrenda bat egon behar da, sailkatuta, diruz lagundutako proiektuaren gastuak eta/edo inbertsioak biltzen dituena. Zerrendan bertan, hartze-koduna eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere.
 3. Aurreko atalean aipatzen den sarreren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzeko, diruz lagundutako proiektua finantzatu duten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehaketa, baita eskatzen den finantzaketa propioarena ere, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.
 4. Erakunde onuradunak eskatu beharreko hiru aurrekontuak, baldin eta diruz laguntzeko gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa gainditzen badu, hala ezartzen baita 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua.
 5. Ondasun higiezinaren eskuratzea bada, tasatzaile independente batek emandako ziurtagiria: tasatzaile hori behar bezala erregistratuta egon behar da dagokion erregistro ofizialean.
 6. Aplikatu ez diren soberakinak eta horiei dagozkien interesen ordainagiria.

2. Auditoretza-txostena Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera prestatu behar da; foru agindu horren bidez onetsi dira kontu auditoreek dirulaguntzen justifikazio-kontuak berrikusteko lanak



egitean jarduteko bete behar dituzten arauak, Foru Sektore Publikoaren esparruan betiere.

Horri dagokionez, honela egin behar da memoria ekonomikoaren berrikuspena, aipaturiko foru aginduko 3. artikuluko 2.b) letran aipatzen dena.

Zuzeneko gainerako gastuen kasuan, gastuen zerrenda sailkatutik lagin bat hartu behar da prozedura estatistikoak aplikatuta; konfiantza-maila %95ekoa izan behar da eta errorea \pm %5ekoa gehienez. Hainbat kontu adieraziko dira: erabilitako laginketa sistema, aztertutako laginak guztizkoaren aldean duen elementu kopurua eta zenbatekoa, eta aztertutako laginari dagokionez aurkitutako akats kopurua (era berean, elementu kopurua eta ukitutako gastuen zenbatekoa).

Dirulaguntzaren zenbatekoaren %12 egotzi ahal izango zaio proiektuari, agiri bidez justifikatu gabe, zeharkako gastuengatik.

3. Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak baimena eman ahal izango du, dirulaguntza jaso duen erakundeak aurretiaz justifikazioa aurkeztuta, Dirulaguntzen araudiko 57. artikuluan ezartzen den moduan egin dadin dirulaguntzaren justifikazioa, hau da, justifikazio-kontua eta gastuen frogagiria erabiliz.

Kasu horretan, onuradunak, artikuluko honen 3. zenbakian aipatzen den dokumentazioaz gainera, honako hauek ere aurkeztu beharko ditu, jatorrizko fakturak edo haien kopia alderatuak, edo trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten gainerako agiriak eta ordainketa egiaztatze agiriak.

4. Justifikazio zailko gastuak, eskabidean arrazoizko azalpena ematen bada, egingdako jarduera eta gastuen egiaztapen baten bidez justifikatu daitezke; betiere aurkeztutako proiektuen ezaugarrien arabera aldatutako den portzentaje zehatz bateko gastuak badira. Horretaz gain, egiaztapen horretan, egingdako ekintza eta gastuak egiaztatze tresna nahikoak egon beharko dira.

5. Dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak Nazio Batuetako nazioarteko erakundeetako batek kudeatutakoak direnean, gastua dute justifikatu beharko atal honetan ezarritako eran. Kasu horietan, nahikoa izango da nazioarteko erakundearen ziurtagiri bat aurkeztea: ziurtagiri horretan dirulaguntza aurrez ikusitako helbururako erabili dela egiaztatuko da, faktura bakarraren bidez.

6. Horrez gainera, ekainaren 25eko 794/2010 Errege Dekretuko edukia foru araudira egokitu arte (dekretu horren bidez, nazioarteko lankidetzaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dira, programa, proiektu edo jarduera batean beste herri-administrazio batzuetako dirulaguntza edo laguntza batzuk batera ematen direnean), egiaztatu behar da aurrez ezarritako jardueretarako erabiltzen direla dirulaguntzak eta laguntzak; horretarako, nahikoa izango da programa, proiektua edo jarduera finantzatu duten herri-administrazioek emandako ziurtagirien bidez egitea egiaztapena.

7. Diruz lagundutako proiektuaren azken txosten auditatua bidaltzeko, gehienez ere 3 hilabeteko epea egongo da, proiektua amaitzen denetik hasita.

8. Amaierako txostenaz gainera, zeina metagarria izango baita, dirulaguntza jasotzen duen erakundeak proiektuaren garapena eta finantzen egoera deskribatzen duen txosten bat bidali beharko du proiektuaren iraunaldiaren erdia iragaten denean. Txosten horretan, ez da jaso beharko ordura arte eginiko gastuak justifikatzeko fakturarik.

9. Erakunde onuradunak dirulaguntza jaso duen programa edo jardueraren kontabilitate bereizia izan beharko du, bai kontabilitate ofizialaren barruan kontu berezien bidez, bai horretarako zabalduko erregistro-liburuen bidez. Batzuk zein besteak justifikazio-kontuaren euskarri izango dira. Kontu edo erregistro horietan honako hauek jaso behar dira: gastuen egoera osatzen duten partida guztiak, banan-banan; fakturak eta gastua justifikatzeko gainerako agiriak, hartzekoduna eta dokumentua, jaulkipen-data eta ordainketa-data identifikatuta.

10. Era berean, dirulaguntza jaso duen programan edo jardueran erabili ahal diren baliabideak jasotzen dituen sarrera-partida bakoitzean sarrera justifikatzeko faktura eta agiri guztiak jaso beharko dira, zorduna, zenbatekoa eta data identifikatuta.



11. Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek gorde egin beharko dituzte jasotako funtsen erabileraren frogagiriak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardueretarako.

28. artikulua.— Ebazpena aldatzea

Diruz lagundutako erakundeak berariazko baimena eskatu behar dio Bizkaiko Foru Aldundiari, baldin eta ekintza egiterakoan aldaketa esanguratsuak egin nahi baditu hasieran aurrez ikusitakoan.

Aldakuntza esanguratsutzat jotzen da proiektuaren amaiera-data aldatzea, proiektua egiteko lekua aldatzea, helburu diren biztanleen aldaketa edo aurrekontuko partida bakoitzerako onartutakoa %10 baino gehiago aldatzea, salbu eta aldatzen den partidak 6.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua badu, zeren, halakoetan, dirulaguntza jaso duen erakundea ez baita behartuta egongo ezein baimen eskatzeko aldaketa horretarako.

Proiektua egiteko epea amaitu baino gutxienez ere hilabete lehenago formalizatu behar dira proiektuan aldaketa esanguratsuak egiteko eskabideak.

III. KAPITULUA**GIZARTEA ERALDATZEKO SENTSIBILIZAZIO ETA/EDO GIZARTEA ERALDATZEKO HEZKUNTZA PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZAK****29. artikulua.— Helburua**

Kapitulu honen xedea 2025eko ekitaldian gizartea eraldatzeko sentsibilizazioan edota hezkuntzan diharduten proiektuetarako laguntzak arautzea da, Bizkaiko Lurralde Historikoan.

30. artikulua.— Erakunde onuradunak

Dirulaguntza lortzeko, eskaria egiten duen erakundeak 2. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

31. artikulua.— Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak

Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak ondorengo ekintzak izango dira:

- a) Kontzientzia kritikoa sortzeko sentsibilizazioa, Bizkaiko gizarteari zuzendutako ekintza guztiak bere barruan hartzen dituen, ezberdintasun ekonomiko, sozial, politiko, kultural eta generoaren arlokoen egiturazko arazoak agerian utziz, tokikoaren eta globalaren arteko loturaren bidez, eta jatorri eta sustrai geografiko ezberdinetako gizakien eta kulturen arteko tolerantzia, errespetua eta elkartasunaren baloreak sustatuz.
- b) Nazioarteko elkartasuneko eta gizartea eraldatzeko hezkuntzako gaien trebakuntza, hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta informalaren arloetan.
- c) Hainbat arazoaren inguruko gogoeta teorikoa egiteko zein proposamen praktikoak prestatzeko balioa duten nazioarteko elkartasunaren eta gizartea eraldatzeko hezkuntzaren arloetako ikerketak.
- d) Eragin politikoa, halakotzat honako hau jotzen delarik: herrialde aberastutako zein txirotutako herritarrak mugiarazteko eta arduradun politiko, ekonomiko eta kulturelei giza eskubideen eta giza garapen iraunkor eta ekitatiboaren aldeko defentsan presioa egiteko kanpaina eta ekimen multzo zabal bat.
- e) Tokian tokiko zein mundu osoko ezberdintasunen eta eraldatzeko bideen inguruko gogoeta eta jarduera bateratuak sustatzen dituzten zentzu zabaleko eragile sozialen sarearen (GGKE, mugimendu sozialak, erakunde publikoak...) sustapena.
- f) Gizartea eraldatzeko hezkuntza, hau da, jende kopuru objektibo zehatz bategan eta hiritarrengan kontzientziatz gain, ekintzarako joera sortzen duten hezkuntza prozesu eraldatzaileak eta denboran egonkorrak.

**32. artikulua.— *Proiektuen betekizunak***

1. Aurkezturiko proiektuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a) Arraza, sexu, erlijio edo iritzien ondoriozko diskriminaziorik ez egotea.
 - b) Proiektuaren iraunaldi osoan genero ikuspegia sartzea.
 - c) Proiektua burutzeko ikastetxe batek zuzenean parte hartzea behar bada, haren zuzendaritzaren gutuna aurkeztu behar da, ikastetxeak proiektuan parte hartu nahi duela adierazten duena.
 - d) Euskadiko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak erabiltzea.
 - e) Ekintza berrien finantzaketari egokitzea. Ez dira inoiz ere lehendik egindako ekintzak finantzatzeko erabiliko. Halaber, ez dira finantzatzeko 2025earen aurreko urteetan egindako gastuak.
 - f) Deialdiaren urte naturalean hastea, edo erakunde eskatzaileari dirulaguntza ordaindu eta hurrengo bi hilabeteetan zehar.
 - g) Proposaturiko ekintzak gehienez bi urteko epean burutzeko moduan planifikatu behar dira.
2. Erakunde bakoitzak kapitulu honetarako proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du.
3. Eskatzaileek adierazi behar dute egin nahi dituzten ekintzetarako beste laguntzarik eskatu edo jaso duten; hala bada, haien zerrenda aurkeztu behar dute, eta laguntza bakoitza zenbatekoa eta zertarako izan den zehaztu.

33. artikulua.— *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak*

1. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak kostu zuzenak izango dira, ondoren adierazitakoaren arabera:
 - a) Proiektuaren funtzionamendurako behar diren langileak, adituak eta gainerako giza baliabideak kontratatzea; haien soldatak eta gizarte-gastuak sartuko dira.
 - b) Proiektuko jardueretariko batean parte hartzeko Bizkaira lekualdatu behar diren pertsonen bidaietarako, ostaturako eta mantenturako egin behar diren gastuak.
 - c) Zenbait euskarrirako materiala argitaratzea edo lortzea (bibliografikoa, ikus-entzunezkoa, magnetikoa), baita beste material suntsigarria ere, baldin eta materialok beharrezkoak badira, aurreikusitako jarduerak egiteko.
 - d) Proiektuan jasotako ekintzen antolakuntzako logistikak eragindako gastuak.
 - e) Itzulpen gastuak.
 - f) Bizkaitik kanpoko joan-etorrietako gastuak ohiz kanpokoak izango dira, eta, edo nola ere, lotura argia izan beharko dute 31. artikuluan aipatutako jarduera motarekin. Argi azaldu beharko da nola lagunduko duen Bizkaiko gizartean kontzientzia kritikoa eta solidarioa areagotzen.

Gastu zuzenean artean ezingo dira sartu ekipamenduak erostea, buletinak edo eskatzailearen ohiko jarduerak hedatzeko elementuak argitaratzea, eskatzailearen administrazio orokorrari lotutakoak eta eskatzailearen barneko topaketa, batzar edo mintegieta-
ra joateko eta egoteko gastuak.

2. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak zeharkako kostuak izango dira, ondoren adierazitakoaren arabera: Proiektuaren identifikazio, formulazio, jarraipen eta ebaluazioari lotutako administrazio eta kudeaketa gastuak. Gastu horiek ezin dira izan emaniko dirulaguntzaren zenbatekoaren %12 baino handiagoak.

34. artikulua.— *Aukeratzeko eta baloratzeko irizpideak*

1. Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak onetsiko diren proiektuak aukeratzeko ditu, eta dirulaguntzak emateko jarraian adieraziko diren irizpideak eta balorazio-mugak hartuko ditu aintzat (100 puntu gehienez).



2. Kapitulu honetara aurkeztutako proiektuak lau irizpide multzoren arabera baloratu dira:

- a) 1 taldea. Proiektuaren kalitatearekin loturiko irizpideak (20 puntu, gehienez).
 1. Diagnostikoa (egoeraren analisi argia eta zehatza, parte hartzen duten biztanleen ezaugarriak, biztanleriaren parte hartzea): 5 puntu, gehienez.
 2. Koherentzia (analisi eta helburuaren arteko lotura eta ekimenen azalpena): 5 puntu, gehienez.
 3. Baliabideak (banakatutako partidak, beharrezko baliabideak eta nahikoak direnak, proformako fakturak): 3 puntu, gehienez.
 4. Jarraipena (kategoria neurgarriak eta egiaztagarriak): 3 puntu, gehienez.
 5. Sistematizazioa: 4 puntu, gehienez.
- b) 2 taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko irizpideen arabera edukia (29 puntu, gehienez).
 1. Tokiko ikuspegi globala (beste herrialde batzuen parte hartzea eta lankidetzak ekintzekin lotuta egotea): 12 puntu, gehienez.
 2. Proiektuaren eredia (lurralde ikuspegia, Afrikan oinarritutako gaiak, foru lankidetzak jarraitzea eta eragile ez-tradizionalen parte-hartzea): 17 puntu, gehienez.
- c) 3 taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko zeharkako lerroak (32 puntu, gehienez).
 1. Eskubideen ikuspegia (urratutako eskubideen eta eskubideen, betebeharren eta laguntza-erakundeen titularren azterketa; eskubide- eta betebehar-titularrak eta jarduerak biek): 9 puntu, gehienez.
 2. Genero-berdintasuna eta aniztasun sexuala (bidezko harremanak, erakunde feministak eta sexu-aniztasuna sustatzea): 14 puntu, gehienez.
 3. Ikuspegi ekologikoa (ingurumenaren eta bizitzaren iraunkortasunerako jardueren azterketa): 9 puntu, gehienez.
- d) 4 taldea. Eragile eskatzailea (19 puntu, gehienez).
 1. Eragile eskatzailea (oinarri soziala, boluntariora, sareak eta komunikazioa): 19 puntu, gehienez.

3. Proiektuak barematzeko, bakarrik hartuko da kontuan dirulaguntzarako eskabidean jasotako informazioa, bai eta erakunde eskatzaileak bere kabuz gehi ditzakeen honako eranskin hauetan jasotzen duena:

- Aurrekontuaren azalpena.
- Proformako fakturak.
- Borondatezko langileen akreditazioa.
- Lan-sareetako parte-hartze aktiboaren ziurtagiria.

Aurkeztuz gero, ordena horretan aurkeztu behar dira eranskinok, izen horixekin. Ez da kontuan hartuko paragrafo honetan aipaturikoez bestelako informazio-iturririk.

35. artikulua. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Kapitulu honetako dirulaguntzen zenbatekoa 6.000 euro izango da gutxienez eta 45.000 euro gehienez.
2. Proiektu hautatuek eskaturiko laguntzaren %100 jasoko dute. Hala ere, behin proiektuak antolaturik (puntuaziorik handienetik txikienera), azken proiektua gehitu ahal izango da, ehuneko baino gutxiagoko laguntza bat emanez, baldin eta ez bada arriskuan jartzen jardueraren bideragarritasuna. Jardueraren bideragarritasuna arriskuan jartzen ari dela ulertuko da, baldin eta eskatutakoaren %75 baino gutxiago eman daitekeenean.

**36. artikulua.— Dirulaguntza jasotzen duten ekintzen jarraipena eta justifikazioa**

1. Dirulaguntza jaso duten erakundeek proiektuaren kostu osoa justifikatu beharko dute Gizarte Kohesioa sustatzako Zuzendaritza Nagusiaren aurrean, Dirulaguntzen Foru Erregelamenduaren (DFE) 57. artikuluan araututako modalitatearen arabera: justifikazio-kontua gastuen frogagirikin.

Hori dela eta, aurkeztu beharko den justifikazioko dokumentazioak (egoitza elektronikoa eta prozedura-katalogoan dagoen ereduaren arabera), honako agiri hauek izan beharko ditu:

- a) Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazita.
- b) Eginiko jardueren kostua zuritzen duen memoria ekonomiko bat, honako hauek izan beharko dituena:
 1. Diruz lagundutako proiektuari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria.
 2. Aurreko atalean aipatzen den gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko zerrenda bat egon behar da, sailkatuta. Zerrendan bertan, hartzekoduna eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere. Zerrenda sailkatua, onartutako sarreraren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzeko.
 3. Erakunde onuradunak eskatu beharreko hiru aurrekontuak, baldin eta diruz laguntzeko gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen Legeak kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa gainditzen badu, hala ezartzen baita Dirulaguntzei buruzko 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikuluan.
 4. Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko soberakinik badago, bai eta haien ondoriozko interesena ere.
2. Dirulaguntzaren zenbatekoaren %12 egotzi ahal izango zaio proiektuari, agiri bidez justifikatu gabe, zeharkako gastuengatik.
3. Era berean, diru-sarreraren egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehatua, bai eta eskatzen den finantzaketa propioarena ere, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.
4. Laginketa-tekniken bidez egingo da atal honetan aipatzen den memoria ekonomikoaren berrikuspena, arrazoiz zuritzeko ea modu egokian aplikatu den dirulaguntza; horretarako, onuradunari, dagokion unean, eskatuko zaio aukeratutako gastu-frogagiriak edo inbertsio-frogagiriak bidal ditzala, bai eta ordainketa-frogagiriak ere.
5. Horrez gainera, ekainaren 25eko 794/2010 Errege Dekretuko edukia foru araudira egokitu arte (dekretu horren bidez, nazioarteko lankidetzaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dira, programa, proiektu edo jarduera batean beste herri-administrazio batzuetako dirulaguntza edo laguntza batzuk batera ematen direnean), egiaztatutako behar da aurrez ezarritako jardueretarako erabiltzen direla dirulaguntzak eta laguntzak; horretarako, nahikoa izango da programa, proiektua edo jarduera finantzatu duten herri-administrazioek emandako ziurtagirien bidez egitea egiaztapena.
6. Diruz lagundutako erakundeak ekintzaren garapenari buruzko azalpen-txosten bat eta finantza-txosten bat bidali beharko ditu, egoitza elektronikoa eta prozedura-katalogoan dagoen ereduaren arabera:
 - a) Lehenengo txostena proiektuaren iraunaldiaren erdia igarotakoan.
 - b) Bigarren txostena, zeina metagarria izango baita, proiektua bukatu eta hiru hilabete igaro baino lehen.

Txosten horietan, ez da beharrezkoa eginiko gastua justifikatzeko fakturarik jasotzea, fakturok eskatu artean.



7. Erakunde onuradunak dirulaguntza jaso duen programa edo jardueraren kontabilitate bereizia izan beharko du, bai kontabilitate ofizialaren barruan kontu berezien bidez, bai horretarako zabaldutako erregistro-liburuen bidez. Batzuk zein besteak justifikazio-kontuaren euskarri izango dira. Kontu edo erregistro horietan honako hauek jaso behar dira: gastuen egoera osatzen duten partida guztiak, banan-banan; fakturak eta gastua justifikatzeko gainerako agiriak, hartzekoduna eta dokumentua, jaulkipen-data eta ordainketa-data identifikatuta.

Erregistro kontuetan edo liburuetan, dirulaguntza jaso duen programari edo jarduerari egotzi ahal zaizkion gastu eta sarrera guztiak jasoko dira.

8. Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek gorde egin beharko dituzte jasotako funtsen erabileraren frogagiriak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardueretarako.

37. artikulua.— Ebazpena aldatzea

Diruz lagundutako erakundeak berariazko baimena eskatu behar dio Bizkaiko Foru Aldundiari, baldin eta ekintza egiterakoan aldaketa esanguratsuak egin nahi baditu hasieran aurrez ikusitakoan.

Aldakuntza esanguratsutzat jotzen da proiektuaren amaiera-data aldatzea, proiektua egiteko lekua aldatzea, helburu diren biztanleen aldaketa edo aurrekontuko partida bakoitzerako onartutakoa %10 baino gehiago aldatzea, salbu eta aldatzen den partidak 6.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua badu, zeren, halakoetan, dirulaguntza jaso duen erakundea ez baita behartuta egongo ezein baimen eskatzeko aldaketa horretarako.

Proiektua egiteko epea amaitu baino gutxienez ere hilabete lehenago formalizatu behar dira proiektuan aldaketa esanguratsuak egiteko eskabideak.

IV KAPITULUA

HERRI TXIROTUETAN EDOTA BIZKAIAN EKINTZA ZEHATZAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK

38. artikulua.— Helburua

Kapitulu honen helburua da lankidetzan ohikoak ez diren eragileak nazioarteko elkar-tasunera sartzeko erraztasunak eskaintzeko laguntzak arautzea.

39. artikulua.— Erakunde onuradunak

1. Dirulaguntza jasotzeko, eskatzaileak dekretu honen 2. artikuluan xedatutako betekizunak bete behar ditu, honakoak izan ezik: erregistro batean erregistratutako antzintasuna (2.1.a artikulua), jardueraren helburu nagusia (2.1.b artikulua) eta aurreko urteetan sentsibilizazio jarduerak egin izana (2.1.e. artikulua).

2. II. Kapitulara, III. Kapitulara edo VII. Kapitulara aurkezten diren erakundeak ezin izango dira aurkeztu kapitulu honetara.

40. artikulua.— Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak

1. Proiektu edo ekintza mota bi diruz lagunduko dira:

- a) Dirulaguntza jasoko dute ondasunak eta zerbitzuak erosteko edota garraiatzeko eta pertsonak lekualdatzeko, herri txirotuetan herritar ahulei zerbitzuak emateko erabiltzen badira. (IV-A proiektuak).
- b) Dirulaguntza jasoko dute Bizkaian burututako gizarte-eraldaketarako sentsibilizazio edota hezkuntzako ekintzak (IV-B proiektuak).

2. Ez dute dirulaguntzarik jasoko ezustekoak direla-eta proiektu jakinetan sortutako egoerei aurre egiteko gastuek.

3. Atzerriratutako langileen gastuak ezin izango dira aurrekontuan sartu. Edonola ere, atzerrirako joan-etorriak ohiz kanpokoak izango dira, eta haien beharra azaltzen duen memoria bat aurkeztu beharko da.

4. Zeharkako gastuek ezingo dute gainditu emaniko dirulaguntzaren %12a.

**41. artikulua.— *Proiektuen betekizunak***

1. Dirulaguntza jasotzeko, proiektuek honako betekizun hauek bete behar dituzte:
 - a) Proiektua GLBaren laguntza-jasotzaileen zerrendako herri batean eginez gero, eskatzaileak tokiko kidea eduki behar du. Bertako kide hori nortasun juridikodun erakundea izan behar da, ez du izan behar irabazteko asmorik, eta behar bezala eratuta eta behar den erregistroan izena emanda egon behar da. Kide hori erakunde bakarra edo bi erakunde edo gehiagoren partzuergoa izan daiteke. Partzuergoa bada, bertako erakunde bakoitzak adierazitako betekizunak bete behar ditu.
 - b) Adin, kultura nortasun, sexu-nortasun, ideologia edo erlijioaren ondoriozko diskriminaziorik ez egotea.
 - c) Ekintza berrien finantzaketari egokitzea. Dirulaguntzak ez dira inoiz ere lehendik egindako ekintzak finantzatzeko erabiliko.
 - d) Deialdiaren urte naturalean hastea, edo erakunde eskatzaileari dirulaguntza ordaindu eta hurrengo bi hilabeteetan zehar.
 - e) Proposaturiko ekintzak gehienez hamabi hileko epean burutu ahal izateko moduan planifikatu behar dira.
 - f) 40.1.b artikuluan jasotako ekintzak egiteko proiektu bat burutzeko irakaskuntzako zentro baten partaidetza aktiboa behar bada, proiektuan inplikaturako zentroko edo zentroetako zuzendaritzaren eskutitz bat erantsi beharko da, proiektuan parte hartzeko interesa jakinaraziz.
2. Erakunde eskatzaile bakoitzak proiektu bakar bat aurkeztu ahal izango du 40.1.a artikuluan jasotako ekintzak egiteko, eta beste bat 40.1.b artikuluan jasotakoetarako.
3. Eskatzaileek adierazi behar dute egin nahi dituzten ekintzetarako beste laguntzarik eskatu edo jaso duten; hala bada, haien zerrenda aurkeztu behar dute, eta laguntza bakoitza zenbatekoa eta zertarako izan den zehaztu.

42. artikulua.— *Aukeratzeko eta baloratzeko irizpideak*

1. Herralde txirotuetan burutzeko antolatzen diren unean uneko ekintzak (IV-A proiektuak) irizpide hauen arabera baloratuko dira (50 puntu, gehienez):
 - a) 1 taldea. Proiektuaren kalitate teknikoarekin loturiko irizpideak (20 puntu, gehienez).
 1. Diagnostikoa (proiektuaren planifikazioaren informazioa, helburu diren biztanleen ezaugarriak, justifikazioa): 6 puntu, gehienez.
 2. Koherentzia (helburua eta justifikazioaren arteko lotura): 6 puntu, gehienez.
 3. Baliabideak (banakatutako partidak eta proformako fakturak): 4 puntu, gehienez.
 4. Iraunkortasuna (iraunkortasunerako aurrez ikusitako bitartekoak eta estrategia): 4 puntu, gehienez.
 - b) 2 taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko lehentasunen araberrako edukia (5 puntu, gehienez).
 1. Lehenespen geografikoa (Afrikako kontinentea): 5 puntu, gehienez.
 - c) 3 taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko zeharkako lerroak (17 puntu, gehienez).
 1. Genero-berdintasuna eta aniztasun sexuala (biztarneriaren ezaugarria, emakumeen eskubideen defentsa, erakunde feministak eta sexu-aniztasuna sustatzea): 11 puntu, gehienez.
 2. Ikuspegi ekologikoa (ingurumen egoeraren azterketa eta jarduerak egitea): 6 puntu, gehienez.
 - d) 4 taldea. Eragile eskatzailea (8 puntu, gehienez).
 1. Eragile eskatzailea (lurrean finkatuta egotea, esperientzia, sareak eta aliantzak): 8 puntu, gehienez.



GLB zerrendako herrialde batean egitekoak diren proiektuak barematzeko, bakarrik hartuko da kontuan dirulaguntzarako eskabidean jasotako informazioa, bai eta erakunde eskatzaileak bere kabuz gehi ditzakeen honako eranskin hauetan jasotzen duena:

- Aurrekontuaren azalpena.
- Proformako fakturak.
- Jasangarritasunaren abala.
- Entitate publiko baten estrategia-agiria.

Aurkeztuz gero, ordena horretan aurkeztu behar dira eranskinok, izen horixekin. Ez da kontuan hartuko paragrafo honetan aipaturikoez bestelako informazio-iturririk.

2. Bizkaian burutzeko antolatzen diren unean uneko ekintzak (IV-B proiektuak) irizpide hauen arabera baloratuko dira (50 puntu, gehienez):

- a) 1 taldea. Proiektuaren kalitate teknikoarekin loturiko irizpideak (20 puntu, gehienez).
 1. Diagnostikoa (egoeraren analisi argia eta zehatza, helburu diren biztanleen ezaugarriak, partaidetza): 6 puntu, gehienez.
 2. Koherentzia (egoeraren analisisa eta helburuaren arteko lotura): 6 puntu, gehienez.
 3. Baliabideak (banakatutako partidak, beharrezko baliabideak eta nahikoak direnak, proformako fakturak): 6 puntu, gehienez.
 4. Metodologia: 2 puntu, gehienez.
- b) 2 taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko lehentasunen arabera edukia (8 puntu, gehienez).
 1. Lehenespen geografikoa (Afrikako kontinentea): 4 puntu, gehienez.
 2. Tokiko ikuspegi globala: 4 puntu, gehienez.
- c) 3 taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko zeharkako lerroak (17 puntu, gehienez).
 1. Genero-berdintasuna eta aniztasun sexuala (biztanleriaren ezaugarria, emakumeen eskubideen defentsa, erakunde feministak eta sexu-aniztasuna sustatzea): 11 puntu, gehienez.
 2. Ikuspegi ekologikoa (ingurumen egoeraren azterketa eta jarduerak egitea): 6 puntu, gehienez.

d) Eragile eskatzailea (5 puntu, gehienez).

3. Bizkaian egitekoak diren proiektuak barematzeko, bakarrik hartuko da kontuan dirulaguntzarako eskabidean jasotako informazioa, bai eta erakunde eskatzaileak bere kabuz gehi ditzakeen honako eranskin hauetan jasotzen duena:

- Aurrekontuaren azalpena.
- Proformako fakturak.

Aurkeztuz gero, ordena horretan aurkeztu behar dira eranskinok, izen horixekin. Ez da kontuan hartuko paragrafo honetan aipaturikoez bestelako informazio-iturririk.

4. Gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ezetsizat joko dira.
5. Onartutako proiektuen zerrenda bakarra egingo da, lortutako puntuen arabera, azpikapituluen arabera inolako bereizketarik egin gabe.

43. artikulua. — Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1. Kapitulu honetako dirulaguntzen zenbatekoa gehienez 15.000 euro izango da edukia 40.1.a artikuluari esleitzen zaion proiektuetarako eta 12.000 euro 40.1.b artikulura aurkeztuetarako.

2. Proiektu hautatuek eskaturiko laguntzaren %100 jasoko dute. Hala ere, behin proiektuak antolatuz (puntuazio handienetik txikienera), azken proiektua gehitu ahal izango da, ehuneko baino gutxiagoko laguntza bat emanez, baldin eta ez bada arriskuan



jartzen jardueraren bideragarritasuna. Jardueraren bideragarritasuna arriskuan jartzen ari dela ulertuko da, baldin eta eskatutakoaren %75 baino gutxiago eman daitekeenean.

44. artikulua.—*Dirulaguntza jasotzen duten ekintzen jarraipena, aldaketa eta justifikazioa*

36. eta 37. artikuluetan ezarritako xedapenak aplikatuko dira.

V. KAPITULUA

**LAGUNTZA TEKNIKOAK JATORRIAN KONTRATATZEA, HAREN HELBURUA
TOKIKO ERAKUNDE-KIDEEEN ANTOLAMENDUA GENERO BERDINTASUNAREN
ALDE ALDATZEN LAGUNTZEA IZANIK**

45. artikulua.—*Helburua*

1. Kapitulu honen helburua, 2025eko ekitaldian, generoan espezializatutako laguntza teknikoak kontratatzeko dirulaguntzak arautzea da, haien helburua eskatzaileek lan egin ohi duten tokiko erakunde-kideen antolamenduan genero berdintasunaren aldeko aldaketa prozesuak erraztea denean.

2. Laguntza teknikoa jasoko duen erakundeak gutxienez bost langile izan beharko ditu.

46. artikulua.—*Erakunde onuradunak*

Dirulaguntza eskuratzeko, erakunde eskatzaileak 2. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko ditu, aurreko urteetan sentsibilizazio-jarduerak egin izanari buruzko baldintza izan ezik (dekretu honen 2.1.e artikulua).

47. artikulua.—*Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak*

1. Dirulaguntza jaso ahalko dute eskatzaileek lan egin ohi duten tokiko erakunde-kideen antolamenduan genero berdintasunaren aldeko aldaketa prozesuak hasten eta garatzen erraztea helburu duten laguntza teknikoak.

2. Laguntza teknikoaren edukiak honako jarduketa bereizi hauetako bati dagozkio:
- Antolamenduaren diagnostikoa genero ikuspegitik egitea.
 - Diagnostiko horretatik abiatuta, antolamenduaren genero berdintasunaren aldeko aldaketa gauzatzeko plan estrategikoa prestatzea eta laguntza egikaritzea.

48. artikulua.—*Eskabideen betekizunak*

- Aurkezturiko proiektuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - Tokiko GGKEaz eta Bizkaiko GGKEaz kanpoko nortasun juridikoa daukan erakunde batek edo pertsona fisiko batek (hark ere aipatu erakundeez kanpoko izan behar du, eta baimena eduki behar du bere kontura aritzeko —inguruabar hori agiri bidez egiaztatu behar du—) egin behar du.
 - Aurrekontua aurkeztu behar da.
 - Aurrez ikusitako jarduerak azaltzea eta kronograma batean antolatzea.
 - Tokiko erakundearen izena, tokia, jarduera-sektorea eta ibilbide laburra.
 - Tokiko erakundeak gutxienez bost langile dituela egiaztatzea.
 - Laguntza teknikoak genero gaietako ikasketak egin behar izan ditu. Horretarako, informazio hau eskaini beharko da: ikasketa horien izena eta ikasketa horien ordu-kopurua.
 - Laguntza teknikoak erakunde-aldaketako prozesuetako esperientzia eduki beharko du. Horretarako, garatutako prozesuen azalpen laburra egingo da.
 - Laguntza teknikoak parte-hartzeko metodologia erabili behar du, eta azaldu beharko da zeintzuk diren haren teknikak.
 - 2025eko abenduaren 31 baino lehen hastea.
 - 2027ko martxoaren 31 baino lehen egitea eta justifikatzea.



2. Erakunde bakoitzak kapitulu honetarako proiektu bakar bat baino ezin izango du aurkeztu.

49. artikulua. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Zuzeneko kostuak diruz lagundu ahal izango dira, baldintza hauetan:
 - a) Laguntza teknikoko zerbitzu profesionalak, tokiko erakunde bazkideetan antolamendu-aldaketa sustatzeko.
 - b) Jardueraren kudeaketatik edo garapenetik eratorritako gastuak, tokiko gizarte-erakundeak bere gain hartutakoak, emandako dirulaguntzaren %10eko gehieneko mugarekin.
 - c) Diruz lagundu ahal izango dira erakunde eskatzaileen zeharkako kostuen gastuak (eskaeraren administrazio- eta kudeaketa-gastuak), emandako zenbatekoaren %12 gehienez, baldin eta epe barruan gauzatu badira, beharrezkoak badira eta proiektuaren edo jardueraren izaerari eta ohiko garapenari erantzuten badiote.
3. Ezarritako egiteko epea amaitu baino lehen ordaindutakoa joko da egindako gastutzat.

50. artikulua. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Dirulaguntza bakoitzaren gehieneko zenbatekoa 20.000 euro izango da. Dirulaguntza horiek bateragarriak izango dira jaso litekeen beste edozeinekin, baina ez da gain finantzaketarik onartuko.
2. Eskatzaileak inprimakian zehaztu beharko du eskatutako dirulaguntza antolamenduaren generoko diagnostikoa ala antolamendurako generoko plan estrategikoa prestatzeko den.
3. Oro har, aukeratzen diren onuradunei eskatutako dirulaguntzaren %100 emango zaie.

51. artikulua. — Aukeratzeko eta baloratzeko irizpideak.

Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak onarturiko proiektuak hautatuko ditu, eta honako balioespen-irizpide eta -muga hauek hartuko ditu kontuan dirulaguntzak emateko:

Diagnostikoei dagokienez:

- a) Plangintza teknikoa (gehienez 60 puntu):
 1. Aurrekariak eta justifikazioa: gehienez 15 puntu.
 2. Antolamendu-alderdien definizioa: 10 puntu, gehienez.
 3. Jarduera-plana: 10 puntu, gehienez.
 4. Metodologia parte-hartzailea: gehienez 20 puntu.
 5. Jardueren kronograma: gehienez 5 puntu.
- b) Laguntza teknikoa (gehienez 40 puntu).
 1. Prestakuntza: gehienez 15 puntu.
 2. Esperientzia: gehienez 15 puntu.
 3. Testuingurua: gehienez 10 puntu.

Plan estrategiko bat egiteko, nahitaezkoa izango da erakundeak generoaren arloko diagnostiko bat izatea:

- a) Plangintza teknikoa (gehienez 60 puntu).
 1. Planerako oinarri gisa balio duen diagnostikoaren ondorio nagusien azalpena: gehienez 15 puntu.
 2. Jarduera-plana: gehienez 15 puntu.
 3. Metodologia parte-hartzailea: gehienez 20 puntu.
 4. Jardueren kronograma: gehienez 5 puntu.



5. Jarraipena: gehienez 5 puntu.
- b) Laguntza teknikoa (gehienez 40 puntu).
 1. Prestakuntza: gehienez 15 puntu.
 2. Esperientzia: gehienez 15 puntu.
 3. Testuingurua: gehienez 10 puntu.

52. artikulua. — Dirulaguntza jasotzen duten ekintzen justifikazioa

Dirulaguntza jaso duten erakundeek proiektuaren kostu osoa justifikatu beharko dute Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiaren aurrean, Dirulaguntzen Foru Erregelamenduaren 57. artikuluan araututako modalitatearen arabera.

Zuzeneko gastuek ez dute beharko agiri bidezko justifikaziorik, baldin eta proiektuaren kostu osoaren %12 gainditzen ez bada. Txosten bat ere aurkeztu beharko dute, non azalduko duten zenbateraino bete eta lortu diren eskabidean ezarritako helburu, emaitza eta jarduerak. Hori gorabehera, helburu horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak ere aurkeztu beharko dituzte erakunde onuradunek.

VI. KAPITULUA**EKINTZA HUMANITARIORAKO ETA LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK****53. artikulua. — Helburua**

Kapitulu honen helburua da laguntzak arautzea 2025 urtean ekintza humanitarioko proiektuetarako eta GLBren laguntza-jasotzaileen zerrendako herrialdeetan natur hondamendien edo gatazka armatuen ondorio diren beharrian larriei aurre egiteko.

54. artikulua. — Erakunde onuradunak

Dirulaguntza eskuratzeko, erakunde eskatzaileak 2. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko ditu, aurreko urteetan sentsibilizazio-jarduerak egin izanari buruzko baldintza izan ezik (dekretu honen 2.1.e artikulua).

55. artikulua. — Dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak.

1. Natura-hondamendiek eta/edo gatazka armatuek eragindako egoerei erantzuteko ekintzak inplementatzeko bideratuko dira kontzeptu horren pean onarturiko dirulaguntzak. Bi eratakoak izan daitezke proiektuak:
 - a) Larrialdietarako laguntza-proiektuak, hondamendi batek kaltetutako herriak oinarrizko ondasunez eta zerbitzuez hornitzeko (berotzeko materiala, aterpea, edateko ura, janaria, osasun-arreta), haien biziraupena bermatzeko eta sufrimendua arintzeko.
 - b) Ekintza humanitarioko proiektuak, zentzurik zabalenean, hondamendien beste fase batzuei erantzuteko asmoz eginak eta garapen-prozesu jasangarri eta iraunkor baterako oinarriak ezartzea sustatzen dutenak. Mota honetan sartzen dira, besteak beste, hondamendien osteko birgaitze-ekintzak, giza eskubideen babesa eta luzaroko laguntza ematea iheslariei eta lekualdatuei.
2. Erakunde eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du kapitulu honetan.

56. artikulua. — Proiektuek bete beharreko baldintzak

1. Proiektuek baldintza hauek bete behar dituzte:
- a) Herrialde pobretuetako erakunde kide batekin egin behar dira proiektuak. Tokiko kide hori nortasun juridikoko erakunde bat izan behar da, irabazteko asmorik gabekoa, dagokion erregistroan eraruta eta izena emanda dagoena. Erakunde batek edo partzuergo batean elkartutako erakunde batzuek osatu ahal izango dute tokiko kidea. Partzuergo bateko erakundeen kasuan, erakunde guztiek bete beharko dituzte goiko baldintzak.



- b) Ez dute bereizkeriarik eragin behar arraza, sexua, erlijioa edo iritzia dela eta.
 - c) Ekintza berriak finantzatzeko izan behar dute, hau da, jasotzen den dirulaguntza ezingo da inola ere erabili dagoeneko amaituta dauden ekintzak finantzatzeko. Era berean, ezin izango dira finantzatu 2025 .urtea baino lehen egindako gastuak.
 - d) Deialdiaren urte naturalean hastea, edo erakunde eskatzaileari dirulaguntza ordaindu eta hurrengo bi hilabeteetan zehar.
 - e) Proposatzen diren ekintzak gehienez ere hamabi hilabeteko epearen barruan egiteko planifikatu behar dira.
 - f) Proiektuaren baremazioan, irizpideen 1. taldean (proiektuaren kalitatearekin loturiko irizpideak) eman daitezkeen puntu erdiak lortu behar dituzte gutxienez, eta nahikotasunez zehaztu eta banakatutako aurrekontu bat aurkeztu behar dute.
2. Erakunde eskatzaileek zehaztu behar dute deialdira aurkezten diren ekintzek beste erakunde batzuen laguntzak ere jaso dituzten edo halako laguntzarik eskatu den. Hala bada, jaso dituzten laguntzen zerrenda aurkeztu behar dute, eta haien zenbatekoa eta helburua zehaztu.

57. artikulua. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Hauek dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuak: proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzun dioten eta epearen barruan egindako beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira.
2. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak izango dira zuzeneko kostuak, kostu hauek alegia:
 - a) Tokiko langileen kostuak.
 - b) Erbesteratutako langileen kostuak, muga hauekin: emaniko dirulaguntzaren %10 eta gehienez ere 3.000 euro gordin hilean. Proiektuaren ezaugarri bereziak direla-eta ehuneko hori handitu behar bada, azalpen-memoria labur bat egin behar da areagotze horren beharra justifikatzeko.
 - c) Proiektuari lotutako prestakuntza-gastuak.
 - d) Funtzionamendu-gastuak, hau da, proiektua beste herrialdean egin ahal izateko beharrezkoak diren material suntsikorrak eta beste hornidura batzuk (edateko uren araztegiak, kanpin-dendak eta abar) erostearen ondoriozkoak.
 - e) Inbertsio-gastuak bakarrak bideratu ahal izango dira larrialdia eragin zuen hondamendiak zuzenean ukitutako azpiegiturak leheneratzera.
3. Zeharkako kostuak ere dirulaguntza jaso dezaketen gastuak izango dira, hau da, GGKE eskatzailearen egoitzako administrazio, kudeaketa eta langileria gastuak, proiektuaren identifikazio, formulazio, jarraipen, ebaluazio eta auditoriari dagokienez. Gastu horiek ezin dira izan emaniko dirulaguntzaren zenbatekoaren %12tik gorakoak.

58. artikulua. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Dirulaguntza hauek bateragarri dira jaso daitekeen beste edozein dirulaguntzarekin, baina gainfinantzaketa ez da onartuko.
2. Aukeratutako eskabideei emandako dirulaguntzak, oro har, eskatutako dirulaguntzaren %100ekoak izango dira.
3. Hala ematen diren dirulaguntzak ez dira izango 80.000 euro baino gehiagokoak.

59. artikulua. — Eskabideak aukeratzeko eta baloratzeko irizpideak

1. Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak aukeratuko ditu eskabideak, eta dirulaguntzak norgehiagokarik gabeko araubidean emango dira. Hala ere, proiektuak diru laguntza jasotzeko, puntu guztien %50 baremo honen arabera lortu behar du:
 - a) 1 taldea. Proiektuaren kalitate teknikoarekin loturiko irizpideak (23 puntu, gehienez).



1. Diagnostikoa (testuinguruaren analisi argia eta zehatza, lotutako/eraginpeko biztanleen ezaugarriak, partaidetzarako mekanismoak): 7 puntu, gehienez.
 2. Koherentzia (egoeraren, helburuaren, emaitzen eta jardueren arteko lotura, adierazleak, plan edo estrategiekin duen lotura): 13 puntu, gehienez.
 3. Baliabideak (banakatutako partidak eta proformako fakturak): 3 puntu, gehienez.
- b) 2 taldea. 2022-2030eko IV. Plan Zuzentzaileko zeharkako lerroak (15 puntu, gehienez).
1. Genero ikuspegia (emakumeen eta gizonen egoeraren eta mailaren azterketa; eta emakumeen eta gizonen arteko bidezko harremanak): 9 puntu, gehienez.
 2. Ikuspegi ekologikoa (ingurumen mehatxuen analisisa eta larrialdi egoerekin eta laguntza humanitarioarekin duen lotura): 6 puntu, gehienez.
- c) 3 taldea. Eragile-partehartzaileak (12 puntu, gehienez).
1. Eragile eskatzailea (gizarte oinarria, gaitasuna eta kaudimena, erakunde eskatzailearen eta toki-erakundearen arteko harremana, sareak eta aliantzak): 7 puntu, gehienez.
 2. Toki eragilea (lurraldean errotuta egotea, esperientzia, sareak eta aliantzak): 5 puntu gehienez.
2. Proiektuak barematzeko, bakarrik hartuko da kontuan dirulaguntzarako eskabidean jasotako informazioa, bai eta erakunde eskatzaileak bere kabuz gehi ditzakeen honako eranskin hauetan jasotzen duena:
- Entitate publiko baten estrategia-agiria.
 - Aurrekontuaren azalpena.
 - Proformako fakturak.
 - Jasangarritasunaren abala.
 - Lan-sareetako parte-hartze aktiboaren ziurtagiria.
- Aurkeztuz gero, ordena horretan aurkeztu behar dira eranskinok, izen horixekin. Ez da kontuan hartuko paragrafo honetan aipaturikoez bestelako informazio-iturririk.

60. artikulua. — *Dirulaguntza jasotzen duten ekintzen jarraipena, aldaketa eta justifikazioa*

36. eta 37. artikuluetan ezarritako xedapenak aplikatuko dira.

VII. KAPITULUA

ESPARRU ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO PROZESUETARAKO DIRULAGUNTZAK

61. artikulua. — *Xedea*

Kapitulu honen xedea da 2025etik 2027ra bitarteko ekitaldietan agenda feministarekin lotutako eremu estrategikoari (aurrerantzean, AE) lotutako prozesuak egiteko laguntzak arautzea.

Proiektu guztiek ikuspegi bikoitza izango dute, eta, beraz, garapenerako lankidetzari nahiz gizarte eraldaketarako hezkuntzari lotutako jarduerak barne hartu beharko dituzte.

Funts bakoitzerako portzentajea, gutxienez, honako hau izango da:

- a) Giza aldaketarako hezkuntza: proiektuak jasotako dirulaguntza osoaren %10 garatu beharko du gutxienez, eta %25 gehienez.
- b) Garapenerako lankidetzak: proiektuak jasotako dirulaguntzaren %75 garatu beharko du gutxienez, eta %90 gehienez.

**62. artikulua. — Erakunde onuradunak**

Kapitulu honetako urte anitzeko laguntzak II. kapituluko artikuluetan xedatutakoaren arabera arautuko dira, salbuespen eta betekizun osagarri hauekin:

1. Erakunde eskatzaileak bete beharreko berariazko betekizunak:
 - a) Eratuta eta dagokion Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroan formalki inskribatuta egotea, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu baino lau urte lehenago.
 - b) Gutxienez hamar proiektu egin izana finantzaketa publikoarekin:
 - 10 proiektu horietatik gutxienez 5ek AERI lotuta egon behar dute.
 - Gutxienez 10 proiektu horietatik 3k Bizkaian egindako GEHkoak izan behar dute.
 - c) Gutxienez 4 urteko esperientzia izatea proiektuaren xede den herrialdean, hala dagokionean.
 - d) Azken 3 urteetan 500.000 euroko edo gehiagoko batez besteko aurrekontua kudeatu izana. Erakunde finantzatzailearen ziurtagiria eskatuko da.
 - e) Berdintasunaren aldeko ekintza-plan bat, genero-estrategia espezifiko bat eta/edo genero-helburu estrategikoak modu zehatzean bilduko dituen plangintza orokor bat izatea.
2. Tokiko bazkidearentzako betekizun espezifikoak:
 - a) Aldez aurretik gutxienez AERekin, erakunde eskatzaile berarekin edo beste batzuekin lotutako 5 proiektu kudeatu izana.
 - b) Proiektua garatuko den lurraldean gutxienez 4 urteko esperientzia izatea.
 - c) Berdintasunaren aldeko ekintza-plan bat, genero-estrategia espezifiko bat eta/edo genero-helburu estrategikoak modu zehatzean bilduko dituen plangintza orokor bat izatea.

63. artikulua. — Proposamenen betekizunak

- a) Proposatutako jarduerak hiru urteko epean egin beharko dira, eta beste urtebete luzatu ahal izango dira, BFAk onartu ondoren.
- b) Proiektua burutzeko ikastetxe batek zuzenean parte hartzea behar bada, haren zuzendaritzaren gutuna aurkeztu behar da, ikastetxeak proiektuan parte hartu nahi duela adierazten duena.
- c) Euskadiko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak erabiltzea.

64. artikulua. — Berariazko izapidetzea

1. Kapitulu honetako proposamenak ondoz ondoko bi fasetan izapidetuko dira:
 - a) Identifikazio-fasea: hasierako fasea, eragin nahi den errealitatearen, arazoaren eta erronken ezaugarriak zehaztera bideratua, bai eta testuinguruari eta parte hartzen duten eragileei dagokienez esku hartzeko estrategiarik egokiena eta bideragarriena zehaztera ere.

Fase hau hasteko, kontzeptuzko ohar bat aurkeztuko da egoitza elektroniko bidez, behar bezala beteta, XXtik XXra bitarteko epean, 13:30ean (biak barne), eta, Batzorde Teknikoak eskabideak izapidetu eta kudeatu ondoren, aurrez hautatutako proposamenen akta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie.
 - b) Garapen-fasea: ondoz ondoko fasea, esku hartzeko behin betiko estrategia garatzeko eta formulatzeko, aurrez hautatutako proposamenetan oinarrituta. Fase hau hasteko, aurrez hautatutako erakunde eskatzaileek proiektu xehatua aurkeztuko dute egoitza elektronikoaren bidez; zehazki, aurrez hautatutako espedientean dokumentazio gehigarri gisa aurkeztuko da, Batzordearen aktan adierazten den epean eta moduan.



Proiektuaren behin betiko formulazioa eta hura gauzatzeko termino zehatzak Batzorde Teknikoaren eta aurrez hautatutako erakundeen artean adostuko dira. Behin proiektuaren baldintzak adostuta, erakunde eskatzaileak azken proiektua erantsiko du, espedienteari erantsitako dokumentu gisa, egoitza elektronikoan. Fase hau amaituko da diruz lagundutako proiektuak emateko ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean eta erakunde onuradunei jakinarazten zaienean.

2. Identifikazio-fasean aurre-hautaketak ez du bermatuko garapen-fasean dirulaguntza emango denik.
3. Garapen-fasean parte hartzeko, beharrezkoa izango da kontzeptuzko nota aurrez hautatu izana.
4. Diruz lagundutako proiektuak indarrean dauden bitartean, Batzorde Teknikoak proiektu horien jarraipena eta ebaluazioa egingo du.

65. artikulua. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Kapitulu honetako proiektuek 450.000 euro jaso ahal izango dituzte gutxienez, eta 900.000 euro gehienez, hiru aurrekontu-ekitalditan. Ekitaldi bakoitzeko gutxieneko zenbatekoa 150.000 eurokoa izango da, eta gehienez 300.000 eurokoa.
2. Urteko ekarpenak ordaintzeko, aurretik egindako ordainketetatik metatutako kopuruaren kargura egindako gastuaren %60 justifikatu beharko da gutxienez, ekitaldi bakoitzeko azaroaren 30a baino lehen.

66. artikulua. — Eskabideak aukeratzeko eta baloratzeko irizpideak

Gizarte Kohesiorako Zuzendaritza Nagusiak hautatuko ditu onartuko diren proiektuak, dirulaguntzak emateko irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan hartuta (gehienez 100 puntu):

- a) 1. taldea. Esku-hartzearen kalitatea (gehienez 20 puntu).
 1. Heldu beharreko arazoaren justifikazio argia eta zehatza.
 2. Plangintza: ezarritako helburuak eta horiek lortzeko proposatzen den estrategia.
 3. Koherentzia: helburuaren, justifikazioaren eta plangintzaren arteko erlazioa, eta proposatutako estrategiaren azalpena).
- b) 2. taldea. Parte-hartzea (gehienez 10 puntu).
 1. Sareko lana eta aliantzak.
 2. Tradizionalak ez diren beste erakunde batzuen presentzia.
- c) 3. taldea. Eremu estrategikoari egindako ekarpena (gehienez 30 puntu).
 1. Genero-azterketa eta gaiari modu kritikoa helduko dion proposamena.
 2. Erakunde feministen presentzia.
 3. Begirada intersekzionala.
- d) 4. taldea. Ikuspegi lokal-globala (gehienez 18 puntu).
 1. Balio erantsia, garapenerako lankidetzaren eta Lanbide Heziketaren proposamenaren eta partekatutako erronken ikuspegiaren arteko lotura kontuan hartuta.
 2. Sozializazio kritikoa Bizkaian.
- e) 5. taldea. Balio erantsia, urte anitzekoa dela kontuan hartuta (gehienez 15 puntu).
- f) 6. taldea. Lehentasun geografikoak: afrikar kontinentea (gehienez 7 puntu).

67. artikulua. — Jasotako dirulaguntzaren justifikazioa

1. Kapitulu honen kontura dirulaguntza jasotzen duten entitateek, proiektu guztia amaitzean, Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari justifikatu beharko diote jasotako dirulaguntza. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010



Foru Dekretuak onartutako dirulaguntzen araudiaren 59. artikuluan arautzen den modalitatea erabiliko dute: justifikazio-kontua, eta, horrekin batera, auditorearen txostena aurkeztea, dekretu honen 26. artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Amaierako txosten auditatuaz gainera, zeina metagarria izango baita, dirulaguntza jasotzen duen entitateak proiektuaren garapenari buruzko txosten bat bidali behar du (deskribapena eta finantza-kontuan azalduz), urteko ekarpenak ordain daitezzen (63.4 artikulua).

Txosten horretan ez dago zertan jaso fakturarik, baina bai haien zerrenda bat.

3. Artikulu honen aurreko zenbakietan aipatzen diren txostenak aztertzeko, jarraipen-batzorde mistoak egingo dira, Gizarte Kohesioa sustatzeko Zuzendaritza Nagusiko teknikariez eta laguntza jasotzen duen GGKEko kideez osatuak.

68. artikulua.— *Aurkezteko debekua.*

Kapitulu honetako dirulaguntzen erakunde onuradunak ezin izango dira II., III., IV. eta VII. kapituletako dirulaguntzen deialdien onuradun izan, ez oraingo deialdien onuradun, ezta etorkizuneko deialdien onuradun ere, diruz lagundutako proiektua gauzatzen amaitu arte.